


## ezagutzen al duzu Donostia?

### Morlas

«Morlas» deitzen diote auzo txiki eta gaur arte lasaia izan den honi berta-ko eta ingurukoak diren pertsona adintsuak. Joan den mendeko planoetan honela azaltzen da: «Morlas» eta «Murlas»: dena dela gaur egun hiru eratara esaten da; «Morlas», «Murlas» eta «Morlaus». Morlas baserri zahar bat zen (gaur desagertua) gas-fabrikaren arzekaldean kokatzen zen, eta Urola ibai-ertzean portu txiki bat zuen. Puyu Mendiaren babesean kokatua. Rikardo de Izagirrek zion Morlas 1525. urtean aipatzeko aldiiz. Eskritura batzuei esker dakigu «Maria de Fayet»ek (gaur Aiete izena), «Joanes de Guarnizo»ri (Guarnizo etxea ere Aieten aukitzetzen zen). Morlaseko portu inguruko lurrauk saldu zizkiola 1609. urtean.

Toponimo gaskoin bat da. Morlaàs edo Mourlás aintzinean Biarnoko hiri-burnua izen zen. Oso hiri ederra da Morlaàs, eliza errotenikoz zoragarri baten inguruau bildua. Esaeretako gaskoien ohitura jarraituaz, honelako hainbat jabe da Morlaàs. Adibide gisa bi esaera polit aipatuko ditu: «Lou qui a bis Mourlás, be-



«Morlaseko sakona. Gaur eskolak kokatzen diren orubeen aurkitzen zen Morlas baserri zaharra».

*pot dise: Ay! Las!* (=Morlas ikusi duenak ongi esan dezake: Ai ama!) «El Mor-

*laàs que t'euritan quan te'u ras!* (=loaten zarenean, Morlaseko kombidatzen

zaituzte!).

JOSU TELLABIDE

### Donostiako kantutegia



J.I. ANSORENAK proposatua

### Sei mila demoniok

Sei mila demoniok  
eraman din, neska,  
gona gorri hori,  
hori da, bai, hori.

Sei mila demoniok  
eraman din, neska,  
gona gorria.  
Bai, alajainkoa,  
neskatxa pihoa,  
nik hori ondo jakin,  
praiska Katalin.

Nou dira bada,  
non dira?  
Hemen agiri ez dira.  
Ezpata soinua adin eta  
San Bizentera joan dira.

Txiribiri.  
nork kantatzen du  
kantu hori?  
Txiri txiki batek  
arbola gainean.

Garaiko prentsari sinistuz gero, 1867.ean antolatu zen lehengo aldi Donostia kantutegiaren festetako artean Sardinaren Ehorzketa. Jendeari izugarri gustatu omen zitzaiotzeta, besteak beste, alargun ilunen abestien artean hau ere azaltzen zen. Jatorriaren arrastorik ez ditu inon topatu ezta nolako doinua zuen ere. Aldapekorekin antza txikia badu azkeneko bertsoan.